



**SALABURU, Pello**  
**Euskararen etxea**

Irún : Alberdania, 2002. - 208 or. ; 21 cm. - (Saiakera Saila). - ISBN: 84-95589-53-2

Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak*, Koldo Zuazoren *Euskararen sendabeharrak* eta Jesus Rubioren *Euskararen garabideak* izeneko obrak argitaratu ondoren, Alberdaniak Pello Salaburu idazle, irakasle eta euskaltzainaren obra hau plazaratu digu, horrela gure gaurko hizkuntzaren egoera eta osasunari buruz nolabaiteko diagnostiko laukoitza eskaintzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohiaren saiakera hau, itxuraz, gaurko gazteei zuzendua da, unibertsitatean ikasten ari lirakeenei, 18-25 urte arteko neska edo mutilentzat burutua, eta bere orrialdeetan zehar frankismoaren azken hamarkadatik hona euskarak izandako gorabehera nagusiak, bere bizi-esperientziatik kontatu eta azaldu nahi ditu.

Itxuraz halako irakurle gazte hipotetiko bati zuzendua dela esan dut, eskarmentuz beteriko aita batek bere seme edo alaba bati gurasokeriaz burutua antza, baina obrari arreta pixka batekin begiratzuz gero, berehala kontura gaitzeko hori literatur aitzakia besterik ez dela, eta egileak egiaz eskaintzen diguna Robert Reford eta Barbra Streisand-en *The way we were* (espainolez *Tal como éramos*) filmaren antzeko gogorapena dela, azken hogeita hamar urteotako hizkuntzaren panoramaren bilakabide eta aldaketa nabarmenak begien aurrean ezartzeko, aztergai, aldi berean bera eta bere belaunaldikoak ere gazteagoak ginen garaiko oroitzapen nostalgikoak hor-han-hemenka tartekatuz. Liburuaren azken aldean letraldatzen dizkigun Moustakiren kantaren hitzek, gainera, asmo hori ezin hobeki salatzen digute: *“Je me rappelle ce temps où j'étais un poète/ j'étais adolescent, ni ange ni trop bête./ Ce temps-là est révolu, je ne le reverrai plus...”*.

Liburuaren lehen partean gaurko hizkuntza errealtatearen inbentarioa erakusten saiatzen da Salaburu, beti ere, gaurko belaunaldien bizialdi laburratik, ahantzia izateko arriskua duen atzora arteko egoerarekin etengabeko konparazioak eginez, gertakarien nondik norakoak, iturriak eta zergatiak nabarmenduz. Horrela, euskarak gaurko gizartean maila guztietan duen presentzia azpimarratzen du eta gure oraingo euskal literatura, gaietan, teknikan eta ekoizpenetan inoiz baino hobea dela aitortzen digu. Hitz gutxitan, agerian dago euskarak, oro har eta zalantzarik gabe, aurrera egin duela, gure mintzairari aspaldidanik hil-kanpaiak arinegi jotzen zizkiotenen asmo beltzak gora behera.

Baina euskararen dudagabeko aurrerakada eta hedadura horrekin batera, Pello Salaburuk arrakastaren beste aldeari ere begiratzen dio: goi helburu horiek lortzeko, hizkuntzak, gure gizarteak, irakaskuntzak, gazteek eta haurrek ordaindu behar izan duten kostuari, eta honi buruzko gogoetak egiten ditu, beti ere hautatu eta garatu

dugun bidea egokiena eta aproposena ba ote den galdetuz. Ondoren, Euskaltzaindiaren zeregina aztertu eta gure hizkuntzaren Akademiak unibertsitatearekin elkarlanean jarduteko komenientzia ez eze, premia ere azpimarratzen du.

Euskarak gure kulturaren sinbologian gordetzen duen tokiari heltzen dio geroago, hor diren mito eta hipokrisia sozial batzuk salatzeke. Azkenik, mintzairaren panorama zabala bere luze-laburrean, gainetik bederen, arakatu ondoren, XXI. mendean zer nolako erronkak gairiditu behar dituen aipatzen ditu, euskararen biziraupena oraindik arriskuan dagoela konkluditzeko. Egilearen ustez, euskara biziko bada, euskaldunok eutsi beharko diogu, baina beste hizkuntza batzuk, kanpoko harremanetarako praktikoagoak, gutxietsi barik.

Hau da, hitz gutxitan, liburuak dakarren mami interesgarria, estilo dotorean eskainia eta, egilea ezagutzen dugunok ongi dakigunez, beragan hain nabaria izaten den umore bereziaren ukitu ez gutxirekin apaindua –“[euskal idazleek] edozein gauzaren gainean idazten dute, normalean ordenagailua maite badute ere”–, bera pertsonalki ezagutzeko aukera izan ez duten beste irakurle batzuk, beharbada, gauza serioen artean aldizka isuritako gatz, piper eta ironia ttantta horiez, agian, konturatuko ez badira ere. Halere, beste batzuetan ezin argiago mintzo da, adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatea aipatzeko orduan, maltzurkeriaz haren erdalatasuna nabarmentzeagatik edo, beti erdal siglekin izendatzen dutenez hauxe dioenean UPV (Universidad Politécnica de Valencia).

Era berean, liburuan zehar, gaurko informatikak eskuratzen dizkigun zeinuz baliatzen da, lantzean behin aurpegia alaitu edo ilundu egiten dioten erreferentzia grafikoak tartekatzeke, ondorio halaber umoretsuekin. Originala da, era berean, orriaren behealdeko oharra era informatikoaz, internet bidez, eskaintzeko ideia, hemendik aurrera askok gogoan izango dutena, segur aski.

Oro har, obra osoa zentzu onez bilbatua da, edozeinek aintzat hartu eta, beste barik, onesteko iritzi zuhurrez betea. Hor aipatzen diren argudio batzuk lehenago bestek ere, helburu berberarekin, erabiliak izateak argiro erakusten digu halako egia, kontsentsu eta oinarri batzuk ez zeudela guk uste genuen bezain finko, ez direla hain ezagunak, onartuak eta hedatuak izan, eta, beraz, entzungorrei horiek aldizka gogoratu beharra ere badela.

Saiakeran zehar badira, bestetik, puntu azpimarragarri batzuk, aurkeztu izan direneko testuinguruagatik, formulaturik daudeneko hitzengatik edo hautabiderako aukera gutxi eskaintzen dutelako, ezusteko, harrigarri eta goitik edo behetik eztabaidagarri gerta daitezkeenak. Eta hauez ere zerbait esan beharra dagoke. Bitariko kontu hauek nahasian jorratuko ditut honen ondoren, liburuan ere halaxe agertzen dira eta.

Hasteko, egia da, P. Salaburuk liburuan dioskunez, etxetik euskaraz ondo dakiten haurrek D ereduko eskola edo ikastoletara joatean, guraso erdaldunak dituzten haurren tratua eta berorien jolaskide izatean, beren etxeko euskara maila ona maiz kutsatu eta hondatzen dutela erdal eraginagatik, beste ume horiek egiten duten erdararen eraginpeko euskara txarragatik. Eta hori elkarren artean euskaraz egiten dutenean... gehienetan, zoritxarrez, erdaraz mintzo baitira. Horraino bat gatozke guztiok. Baina benetan uste al dugu soluzioa litzatekeela, egileak iradokitzen duen beste hori, hots, agian hobe luketela haur euskaldun horiek frantses, ingeles edo aleman ikastegietara joango balira, horrela interferentziarik ez izateko? Ez al liekete han ere euskara irakatsi beharko, irakasgai gisa bederen? Eta ez lukete bertan ere erdaraz egingo beren ingurukoekin, D ereduko ikastegietan bezalaxe? Ene ustez, zalditik astorako jauzi horrek ere antzeko eragin txarra ekar liezaieke, beren euskara ona higatu eta erdaldunduz.

Ikastolako haurrek, euskara mintzatu arruntean sarritan batere trebeak izan ez arren, zenbakiak eta matematika ariketak euskaraz txikitandiko euskaldun zahar erdaraz eskolatuek baino hobeto erabiltzen dituztela eta (85. or.), hauxe gogoratu beharko litzateke, hor hizkuntzalaritzako axioma jakina agertzen zaigula beti nagusi: zifra handiak eta zenbakizko eragiketa nagusiak ez direla nahitaez amaren hizkuntzaz esaten ez egiten, eta beti ere horiek eskolako hizkuntzan lorturiko trebetasunak direla.

Euskara txarra zuzendu beharraz ere balegoke zer esan. Lehenengo eta behin, euskara batuan tokian tokiko esaldi, aditz erregimen eta posibilitate guztiak oraindik erabat sartuak, irabiatuak eta behar den bezala ezagunak ez ditugunez, maiz ez daki-gu zer dagoen ongi eta zer gaizki, eta gehienetan geure etxeko edo eskualdeko parametroekin ari gara inorena neurtzen. Horrela, bere herriko euskara besterik ez dakien Donostiako tabernariak Bizkaitik etorririko eta “Gorri bi, mesedez” eskatu dion eskaldunari irriño mesprextatiaz “Tori, bi gorri” esanez eskaintzen dizkio eskuarki baso ardoak. Hortaz, ez da harritzekoa P. Salaburuk salatzea bizkaitar batek *oraintxe berean* esaldia txarto dagoela uste izatea. Izan ere, berak ezagutzen duen ohiko erregistroan Jaurerrian esaten den bakarra *oraintxe bertan* edo *oraintxe bertan* direlako, besteari, ekialdekoari, erabat arrotz iritzirik.

Gauza bera esan daiteke Salabururi arraro egiten zaion Hondarribiko “baserritar etorbidea” horregatik, zinez ulergarriagoa litzatekeen “Baserritarren etorbidea”ren orde, baina ez dezagun ahantz, hain bitxi omen litzatekeen “frantses etorbidea” horren parean baditugula *frantses porru*, *frantses arbi*, *frantses intxaur*, *frantses katu*, *frantses txakur* eta *frantses bide* moduko hitz zaharrak ere, Pellori bitxi iruditzen zaion logika berberaz aspaldian moldatuak.

Zalantzarik gabe, arrazoi osoa dauka P. Salaburuk, lan zientifikoen aitzakiaz, batzuek darabilten euskara trakets eta erdaratik mimetikoki hitzez hitz itzuliriko horren kezu izateko, eta guztiok ba gatoz Justo Mari Mokoroak edo Orixek proposatzen zituzten itzulpen askeago eta jatorragoak beti ere onargarriagoak direla, zientziaren mamia eta termino zehatzetan adierazi propioak desitxuratzen ez dituzten bitartean behintzat. Zeren, beste muturrera joanda, nekez balia baikaitzke iratze usaineko euskara txukunaz trigonometria, intsektuen taxonomia edo kimika-konposatuak azaltzeko orduan.

Hamargarren kapituluan hizkuntzaren batasunak arlo batzuetan egindako pauso baldarrez, euskalkien eta ipar eta hegoaldeko tradizio zahar eta berrien arteko badaez-padako orekaz ere kezkatu agertzen da idazle baztandarra, eta azken urteotan hasieran aлегeraki onarturiko eta bultzatutako gauza batzuk zuzendu beharra aitortzen du. Gisa da, euskararen batasunak, giza proiektu oren arabera, praktikan bere bidea egokitu behar izan baitu, sortuz joan diren premiei eta gero eta hobeki ezagutzen ari garen errealitateari erantzuteko. Horrek gogora dakarkigu *Reds* film sonatuan sovietarrak garaile agertzean protagonista batek beste bati Moskun esandakoa: “Iraultza ez da gertatzen ari guk aurretik uste genuen bezala, baina halere gertatzen ari da”.

Euskara, berreskuratu beharreko ondare kulturala ez eze, batzuentzako bandera eta beste asmo eta helburu politiko eta ekonomikoetarako estalki hutsa ere badela diosku Salaburuk arrazoi osoz 10. eta 11. kapituluetan, eta zenbait pasadizo pertsonal interesgarri kontatzen ditu, horien artean LUR eta ELHUYAR editorialen arteko behialako gatazkaren xehetasunak –aspaldian atera gurako arantza mingarria nonbait– gogoratzeko parada izanez. Inork ez dio arrazoiak kenduko Pellori AEKren aldeko 1977ko korrikaldi hartan izandako gertaera lotsagarriagatik, baina “Euskal Herriko Unibertsitateak bere historian izan duen lehenbiziko errektore guztiz euskalduna” (113-114. orr.) tituluz eskusibaz jantzi nahi horrek ez du oso leku onean uzten bere aurrean errektore izan,

euskaraz jakin eta hizkuntzaren normalizazioaren alde hainbeste egin zuten G. Monreal eta J.J. Goiriena errektore halaber euskaldunen lan eskergarria.

Oraintsu arteko erdal kulturaren eragina uste baino handiagoa eta hedatuagoa dela salatzen du idazleak. Izan ere, gure hiriburuetako kultur mundu ofiziala oraindik erdarazkoa da, erdaraz pentsatua eta erdaldunen neurrira antolatua. Eta arrazoi oso dauka, aski baita gure egunkari nagusien kultur agendak eta ospakizunen albisteak irakurtzea. Eta “abertzale” omen diren kazetek bekatu bera egiten dute beren “bocherias”ekin. Aldi berean, gure hedabideek, EITBk bereziki, hizkuntzaren kalitateaz –Kataluniako hedabideetan hain bereziki zainduaz– orain arte erakutsi duen ardurarik eza eta erdarazko katean euskal kulturari egiten zaion erdeinua azpimarratzen du, lehenbailehen zuzendu beharreko akats larritzat.

Pello Salaburuk Katalunian gizarte maila guztietan eta ideologia orotan barna ongi trinkoturik aurki dezakegun katalanismo kulturala nahi luke Euskal Herrirako ere, eta hizkuntzarekiko atxikimendua ez soilki abertzaleen baizik hiritar guztien gutxienezko denominadorea izatea, ideologia politiko guztietatik at. Tristeza da, benetan, hain oinarritzko desira honetan oraindik euskaldunok erabateko adostasunik ez lortzea, eta Mokoroak, Krutwigek, Villasantek, Mitxelenak eta beste hainbestek behin eta berriz aldarrikatua oraindik ere errepikatzen ibili beharra, entzun nahi ez dutenek noizbait adituko digutelako esperantza etsian.

Bereziki interesgarriak dira P. Salaburuk, bere obraren 14. kapitulu luzean zehar, K. Zuazoren eta J. Rubioren liburuei egindako kritikak. Lehenbizikoaren oinarriekin, hots, etxeko, herriko eta eskualdeko euskararen defentsan bat dator, eta maila horietako naturaltasuna, berezkotasuna eta freskotasuna berak ere gorde nahi lituzke, euskara batuan txertaturik baina. Ez dakusa garbi, ordea, defentsa hori nola gauza daitekeen, gaurko gizartearen, familien eta administrazioaren egituraketa aldakor, malgu eta mugikorrek bestelako bideetatik abiatuak doazelako, tokian tokiko ezaugarriak beren horretan mantentzea praktikan ezinezkoa izanik. Eskualde euskaldunetako haurrentzako testuliburu dialektal bereziak prestatzeko ezintasun ekonomikoaz, antzeko ondorioetara heldu zen Xabier Gereño 1971.eko apirilean Deustuko Unibertsitatean antolatu zen Euskal Antropologiazko II. Astean aurkeztu zuen txosten irakurgarrian.

Esan dugunez, euskalki eta tokian tokiko aldaki mintzatuei dagokienez, P. Salaburu horien guztion ezaugarri eta aberastasun lexikal eta fraseologiko bereziak literatur euskara batuan integratzearen alde agertzen da, eta zinez esan daiteke etsenpluaz predikatzen digula, ez baitira gutxi bere liburuan zehar antzeman daitezkeen nafar eta areago baztandar elementuak ere: *akitu* ‘amaitu’, *atzenkor* ‘ahanzkor’, *altxapeka* ‘ezkutuka’, *neskatiko*, *eltzerma* ‘kriseilua’, *andarka* ‘zabula, koloka’, *apozauli* ‘zapaburu’, *pataskatu* ‘oratu, nahasi, irabiatu’, *adrendu* ‘trebetasuna’ *durdurak hartu* ‘zorabiatu’, *-ren surrioan* ‘-ren atzean’, *amontegin ibili* ‘larrutan egin’, *erdezu* ‘lerdetsu’; bai eta ekialdeko beste hitz ugari ere, hala nola *apaletsi*, *tarrotu*, *teku*, *sangaratzte*, *elepide*, *aise*... Egia esan, nafar euskara hori, orain arte behar baino gutxiago erabili delako, interesgarria bezain aberasgarria gertatzen da guztion lexikoa osatzeko, eta, alde horretatik ere, eskertzekoa da Salabururen saioa.

Are gogorrago esesten die Salaburuk Jesus Rubiok, euskararen egitura “arintzeko” eta inguruko indoeuropar hizkuntzen erduetara egokitzeko, argitaratu dituen proposamenei. Eta, ene ustez, ez da gutxiagorako. Izan ere, gure “Hizkuntzak barnean du zulora eramango duen harra, ez da kanpora begiratu beharrik, eta har horrek eragozten dio benetan hizkuntza komunikatibo erabilgarria izan dadin”. Ez da Rubioren uste hori, ideia bat ere originala, gure artean lehen aldiz Unamunok formulatua baitzuen jada, eta askoz ere argudio zientifiko sakonagoekin, geroxeago banan-banan amilduko ziren arren.

Rubiori abiapuntua erdaretan jartzea aurpegiratzen dio Salaburuk, komunikazioaren erraztasuna norberaren erreferentzia-talairako hizkuntzaren arabera dela argudiatuz. “Eta munduko liburu gehienak euskaraz argitaratuko balira?” bezalako galderak egiten dizkio Pellok, balizko olak burdinarik egin ez daroala ahantzirik non-bait. Ene aburuz, deklinazioa ez dela ezertarako oztopo frogatzeko, hartaz baliatzen ez denarentzat edo ez dakienarentzat ez bada, hobe zatekeen inolako arazorik gabe deklinabideaz baliatu eta baliatzen diren hizkuntzak gogora ekartzea: greziera, latina, alemana, errusiera eta eslaviar guztiak (bulgariara salbu), georgiera edo japoniera, adibidez, edo, beste muturrera joanda, txineraren kasua aipatzea, europar eredu gutietatik urrun. Edo errazago oraindik, bere liburuan bertan Salaburuk umoretsu kontatzen duenez (102-103. orr.), egituraz hain hurbila omen duen indoeuropar ingeles horrek Estatu Batuetan, espainolari sorrarazten dizkion interferentzia sinesgaitz horiek birseinalatzea: *Deliveramos grocerías’ Conducta criminal no será tolerada. Citifare llevará a prosecución criminal hasta la extensión entera de la ley*”.

Ez dakusat hain garbi, ordea, “bai frantsesa eta bai espainola maisukeriaz betetik daude[la]”, ez eta “neketan aurkituko dugu[la] horiek baino hizkuntza pedanteagorik eta erredundanteagorik” ere. Litekeena da, ohituraz, tradizio literario, administratibo edo kortesiazkoagatik garai batean, *de facto*, mintzaira batzuk apainkeriaz aseegi agertzea, eta hori ohikoa izaten da luzaro gorte-hizkuntza izateko zoria ukan duten mintzairetan, baina horrek ez du esan nahi berez eta nahitaez holakoak direnik. Bistan da, bai, *Cyrano de Bergerac* antzerkian Roxane ederrak hitzezko jolaskeriak eskatzen zizkiola bere miresle Christian de Neuvillette gizagaixoari, –*Oh!...Délabyrinthez vos sentiments!*– bertsotan gainera, baina Edmond Rostand-en obra horrek islatu nahi duen XVII. mendeko Frantzia hura ez da gaurkoa, bere oraingo *conversation de politesse* horretan orduko zantzorik gelditu bazaio ere.

Egiazki kortesiazko apainkeriarik aurkitu nahi izanez gero, hobe genuke japonieraren tratamendu sofistikatuari behako bat egitea, edota javaeraren lexikoari, hor kontzeptu bakoitzak hitz binaz eman ohi delako: *ngoko* estiloan harreman informaletarako, eta *krama* mailako hitz dotoreagoaz estilo jasoagoan jarduteko. Bestalde, erredundantziak ari bagara, hipnotizaturik inoren zorri ñimiñoari so egon gabe, etxean bertan daukagun zerri potoloaz ere kontura gaitzeko euskaldunok, geure hika-zuka loretsu eta praktikan erabilezin horrekin –eta Salaburuk berak aitortzen du hori obraren hasieran–, nekez esan baitiogu inori ipurbeltz.

Euskararen etorkizuna aztertzerakoan egileak, mundu zabalean hedadura txikiko hizkuntza darabilten gainerako nazioen antzera, euskaldunok nazioarteko harremantarako beste mintzaira bat, edo gehiago, beharko dugula gogoratzen digu, espainol eta frantsesari muzinik egin gabe, kontua, azken buruan, gehitzea eta gaineratzea baita, eta ez, erdal eskola ofizialak orainsu arte egin duen bezala, jatorrizkoaren orde bestea ezartzea. Zuhurki azpimarratzen du ingelesaren garrantzia, baina Gotzon Garatek nahiko lukeen euskara-ingeles elebitasun (oraingoz) utopikora heldu gabe, horrek Strasburgeko parlamentuan behintzat ikasle zintzoren bat izan arren, hots, Koldo Gorostiaga europarlamentaria, bertan beti ingelesez ari dena, espainiera-frantsesa alde batera utzita.

Azkenerako utzi dut Salaburuk plazaratzen duen beste gai eztabaidagarri bat: euskaldun berriek euskal letretan aspaldian izan duten pisu handia. Haren ustez, gehiegizko garrantzia eman zaie, eta berak sehaskatik euskara ikasi dutenen aldeko apustua egiten du (96. orr.). Horretarako, G. Garateren hitzak hartuz, mundu zabalean omen dauden lau idazle elebidunen izenak aipatzen ditu –Conrad, Nabokov, Beckett eta Koestler– beren bakantasuna islatzeko. Lehen mailako idazleez aritzen da, noski, gure inguruan holakoak eskubeteka baititugu, eta horietako askok, gainera, beren

lehen hizkuntza ez den batean idatzi dute beren literatur emaitzaren parte ez txikia, eta Oihenarte, Larramendi, Azkue, Mitxelena, Villasante, Haritschelhar, Mirande, Txillardegí edo Aresti hurbiletatik hasita, fama ongi mereziaz erdaraz besterik idatzi ez duten Eneko Loiolakoa edota Manuel Leguineche modukoetara hel gintezke.

Bistan da euskaldun berri askok egundoko astakeriak egin ditugula euskara kontuan, txikitandiko euskaldun zahar askok bezalaxe, derradan bidenabar, baina ez dut uste, gure hizkuntza nazionala berreskuratzeko une latz honetan hainbeste mila lagun euskara ikasten eta lantzen ari direlarik, arazo hau arinki eta kolpe batez hain erraz trata daitekeenik, hots, adorezko hitzak eta aurrera segitzeko animuak kritika eta erdeinuak baino beharrezkoagoak direnean. Luze joko liguke kontu honetan sakontzeak, baina, ene ustez, ez da garbi ulertzen, txikitan euskaraz besterik ez omen zekiten batzuei espainolez eta frantsesez erdal idazle aski on edo bikain izatera hel daitezkeela erabat onartzen zaien bitartean –Amin Maalouf bezalako arabiarren edo Sahararik hegoalderako *négritude*-ko idazle “frantsesak” ahantzi gabe– alderantzizkoa zergatik jartzen den zalantzan, adibideak, gainera, begien aitzinean ditugunean. Baina hau, jakina, beste istorio bat da.

Bego hemen, hortaz, *Euskararen* etxea liburuaren aipamena, irakurleari hainbat azterketa serio, kezka, poz, esperantza, salaketa eta iradokizun ugari eskaintzen dizkiona.

Xabier Kintana Urtiaga



**SERRANO LARRÁYOZ, Fernando**

**La Mesa del Rey. Cocina y régimen alimentario en la corte de Carlos III el Noble de Navarra (1411-1425)**

Pamplona : Gobierno de Navarra, 2002. - 422 p. - ISBN: 84-235-2254-7

La reciente monografía de Fernando Serrano, aparecida cuando apenas había transcurrido un año desde su propia presentación como tesis doctoral, representa un aportación novedosa en el panorama de los estudios de historia bajomedieval de Navarra, inscrita en las más recientes tendencias de la historiografía: la de la historia de las mentalidades. Prologada por el profesor medievalista Bruno Laurioux, además secretario general del Instituto Europeo de la Alimentación, él mismo es quien mejor valora el papel de la misma en la historiografía actual, colocándola junto a los estudios del grupo de Antonio Riera Melis para el espacio cristiano –y preferentemente catalán– y a los de Manuela Marín y Expiración García Sánchez para el hispanomusulmán. Sin ser un tema absolutamente dejado de lado hasta ahora por los historiadores del entorno navarro, no cabe duda de que no había sido tratado todavía con las dimensiones y exigencias de una tesis doctoral.